

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Villamadernetik Espejorako hondakin uren hodi biltzailearen eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko ekainaren 2an egindako bilkuran, 231/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Erantzuna ematea Villamadernetik Espejora hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeke proiektua jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioei. Onespena ematea desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari eta okupatu beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 12ko 184/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen Villamadernetik Espejora hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeke proiektua; behin-behineko onespena eman zitzaion proiektuak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrendari, eta zerrenda hori jendaurrean jartzeko agindu zen.

Jendaurrean egon den aldian, alegazio idazkiak aurkeztu dituzte espedienteko 3/000, 4/000 eta 6/000 finken inguruan, eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horiek aztertu eta haien gaineko txostenak egin dituzte, zeinak Bide Azpiegituren Zuzendaritzak eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi, eta bere egin ditu Foru Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzunda, bidezko da behin betiko onestea proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, zeina osatu baita kontuan hartuta jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei emandako erantzunak eta izapide horretan egindako egiaztapenak, eta horiek okupatu eta eskuratu beharra adierazten da, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakotzat jo behar dela. Horiek horrela, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazi du Villamaderneko herriguneko egungo arazketa sistema oinarrituta dagoela Fuente Muño erreka doan hobi septikoan. Erreka hori Omecillo ibaiaren adarra da, zeina ES2110005 Omecillo-Tumecillo ibaiak KBE gisa katalogatuta baitago. Arazketa sistema hori ez da eraginkorra, Europako zuzentzaruek ezarritako ingurumen helburuak betetzeko; horregatik proposatzen da hodi biltzaile bat eraikitzea, grabitate bidez funtzionatuko duena eta hondakin urak Espejoko saneamendu sarearekin lotuko dituen, era horretan, hondakin ur guztiak batera Gaubeako araztegiara eramateko. Horrela, arazketa sistema eraginkorragoa izango da eta Fuente Muño erreka uren kalitatea hobetuko da, eta, ondorioz, hodi septikoa dela-eta egun dagoen ingurumen arazoa eta osasun publikoko arriskua konponduko dira.

Presazko okupazio izapidea gauzatu dadin, beharrezkoa da foru erabakia, eta Foru Gobernu Kontseilu honek hartu behar du, honako hauek xedatutakoaren arabera: lurzorua eta hirigintzaren ekainaren 30ek 2/2006 Legea garatzeko presazko neurrien ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 artikuluko 1.b) apartatua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31.2 a) eta 36. artikulua; toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua, eta autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a.10 artikulua.

Eskumen hori baliatzeko, foru aldundiak beharrezko ondasunak eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1. artikuluan xedatzen duen moduan. Era berean, adierazi behar da erakunde honen barne eremuan Foru Gobernu Kontseilua dela organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute honako hauek: Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.26) artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena aztertu da, zeinetan adierazten baita badela beharrezko aurrekontu kreditua.

Horrenbestez, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Erantzuna ematea Villamadernetik Espejora hondakin uren hodi biltzailea eraikitzeke proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioei, Lege eta Administrazio Zerbitzuak eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak emandako txostenen arabera baietsiz edo ezetsiz.

Bigarrena.- Onespena ematea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, honekin batera doan eranskinean jasotzen dena, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adieraztea, desjabetzeko, aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Hirugarrena.- Presazkotzat jotzea erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunen eta eskubideen okupazioa eta, hori dela eta, desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatzen duen presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Laugarrena.- 22.891,20 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko 50106.5300.6000001 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-971/000.20.1), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Bosgarrena.- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Seigarrena.- Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauaren 16.1.a) artikulua.

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsoaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespena gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Gaubeako Udaletxetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 15a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Vías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

VILLAMADERNETIK ESPEJORAKO HONDAKIN UREN HODI BILTZAILAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUA  
PROYECTO CONSTRUCTIVO DEL COLECTOR DE AGUAS RESIDUALES DE VILLAMADERNE A ESPEJO

Esp./E:pte. 2019/3

FINKAREN ZK	TITULARRAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	PARCELA			BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES	TERMINO MUNICIPAL			SUPERFICIE AFECTADA TEMPORAL	SUPERFICIE AFECTADA DEFINITIVA	DIA	HORA
2000	AGUAYO ALONSO, ROBERTO	12 416	GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO	20	7.225	1.010	16	10:00
1000	AGUAYO CAMPO, LEONARDO	12 1097	GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO	26	284	99	16	10:45
8000	ANGULO LARREA, PEDRO	12 525	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO	4	1.543	324	16	12:00
3000	PINEDO VALLE, DANIEL	12 499	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO	4	2.671	385	16	12:45
4000	PINEDO VALLE, DANIEL	12 498	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO	4	2.962	410	16	12:45
9000	FERNANDEZ DE PINEDO MORAL, ANTONIO	12 529	GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO	4	2.007	205	17	10:00
10000	GUINEA BELTRAN DE SALAZAR, M. PURIFICACION	12 530	GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO	4	841	121	17	10:45
5000	LARRAZABAL LLANO, J. MIGUEL	12 518	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO	4	4.496	725	17	12:00
6000	URBINA RUIZ, PRIMO	12 519	GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABORANTZA LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO	8	1.785	381	17	12:45
2090	JUNTA ADMINISTRATIVA DE VILLAMADERNE	12 417	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORE UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO	4	600	91	17	13:30